



Zaintzak landuz

ekonomia solidario eta feministagoa
HAZIKO DA





2020ko azaroa

REAS Euskadi
Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Harrobia Plaza 4, 48003 Bilbo (Bizkaia)
Tel.: 94 416 05 66
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.reaseuskadi.eus/eu

Twitter: @REASEuskadi
Facebook: @REASEuskadi
Instagram: @REASEuskadi

Diseinua eta maketazioa: Labox Marketing y Comunicación.



Esleipen-EzKomertziala-BerdinPartekatu 3.0

Dokumentu honek Creative Commons lizentzia dauka. Obra hau aske kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea baimentzen da, baldin eta egile-tza aitortzen bada eta xede komertziale-tarako erabiltzen ez bada. Aldatzen edo eraldatzen bada, edo obra deribatu bat sortzen bada, honen berdin-berdina den lizentzia batekin soilik banatu ahalko da.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

Finantzatzaileak:





REAS Euskadik merkatu soziala bultzatuz harreman ekonomikoak ulertzeko eta ezartzeko modu berri bat proposatzen du, bidezkoagoa, inklusiboagoa, demokratikoagoa, feministagoa eta ekologikoagoa. Harreman produktiboez gain, erreproduzioaren esparrua ere ekonomiaren funtsezko zatitzat hartzen duen proposamena da. Zaintzak eta beste gogoeta feminista batzuk merkatu soziala ulertzeko moduan eta bere praktikan txertatzen saiatzen gara, eta hainbat tresna proposatzen ditugu parte hartzen duten erakundeek eredu bizi-garriagoak eta iraunkorragoak jarrai ditzaten.

Horretarako, beharrezkoa da, besteak beste, harremanetan arreta jartzea, prozesuen baldintza metodologiko eta materialak zaintzea, modu iraunkorrean antolatzea eta lana, bai produktiboa bai erreproduktiboa, modu erantzunkidean banatzea. Ikuspegi feministatik bizigarriak diren erakundeak eraikitzeaz ari gara, eta ekonomia ulertzeko eta garatzeko modua ez ezik, lan egiteko modua ere eraldatzeaz.

Gure erakundeak logika produktibista eta heteropatriarkaletatik ateratzeak oso eraldaketa sakona eskatzen du, eta, gainera, ez daukagu horretarako eskuliburu edo errezeta magikorik. Alabaina, baditugu erakunde askoren ibilbideak, bide berriak esperimentatzen eta bide horiek erraztuko dituzten tresnak eskaintzen ari direnak. Gida xume honek tresna horietako batzuk proposatzen ditu, lurra lantzen denean bezala, hazi batzuk landatu eta etorkizunean ekonomia solidarioko erakunde bizigarriagoak biltzeko esperantzaz; ahaztu gabe solidarioa izateko, nahitaez, feminista izan beharko duela.



1. Galdatzea

LURRA EGURASTEA



Barrura begiratzean eta erakundearen sustraiak nola dauden jakitean datza.

Genero arteko desberdintasunak ortu guztietan daude. Aztakatu sakon zuenean, ziur aurkituko dituzuela.

- › Emakumeek enpresa eta erakundeetan duten egoerari eta posizioari buruzko **diagnostikoak** egiteko tresnak behar ditugu. Horiek izan ohi baitira abiapuntua gerora berdintasun-planak edo genero ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak definitzeko:
 - * Enpresetan berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko metodologia (Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea).
 - * Genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzaren eman beharreko laguntzak, 2019 (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia)
 - * Bizigarri deritzo REAS Euskadik genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketaren alde bultzatu duen prozesuari, eta proposatzen dituen eraldaketak eta tresnak bideo labur honetan daude ikusgai.
- › Erakunde baten edo jarduera jakin batzuen **autodiagnostiko kritikoa** sustatzen duten tresna sinpleagoak ere badaude:
 - * Patriarcalitest autodiagnostikorako Ekologistak Martxanek garatutako tresna da. Modu ironiko eta atseguinean, erakundearen “patriarkaltasun-maila” identifikatzen laguntzen du, eta hobetzeko jarraibide batzuk proposatzen ditu.
 - * Xarxa d’Economia Solidària-k (XES) txantilo erabilerraz bat sortu du batzarrak eta bestelako lan bilerak genero-ikuspegitik behatzeko.

ONGARRIA BOTA



Ongarria elikadura da, eta zenbat eta askotarikoagoak izan gure ongarriak, orduan eta aberatsagoa izango da uza.

Txertatu dibertsitate sexualari, funtzionalari, jatorrikoari, klasekoari, adinekoari... kasu egiten dion begirada. Eta, batez ere, gogoratu aniztasun horren ikusgarritasuna bezain garrantzitsuak direla barne-zaintzak.

- Erakundeetako aniztasunaren kudeaketarekin, sexu- eta genero-aniztasunarekin, LGBTIfobiaren prebentzioarekin eta abarrekin lotura duten **prestakuntza**-ikastaro eta -jardueren eskaintza handia dago, bai taldeentzat bai norbanakoentzat.
- Taldeen zaintza-neurriak** txertatzeko tresnak. Tresna horiek aintzat hartu behar dituzte askotariko egoerak, testuinguruak, nahiak, pertsonak eta abar:

- * Saihestu ditzagun joera androzentrikoak kontziliazio-neurrietan.

Agintzari Kooperatibak **Vinculograma** deituriko tresna garatu du. Tresna honek aukera ematen du nor zaindu erabakitzekeo kidetasuna edo lotura emozional eta/edo soziala bezalako irizpideetan oinarrituta, eta, honela, zaintza-eredu berriak bultzatzen ditu. Pertsona bakoitzak 5 lagunek bi talde egiten ditu (bata lehen mailako taldea eta bestea bigarren mailakoa). Horrela langileek talde horietako pertsonak zaintzeko eta artatzeko kontziliazio-neurriak har ditzakete.

Mugarik Gabe GGKEak bere kontziliazio-neurrien artean sartu du ezkongabetasun-baimen ordaindua 5 urtetik gorako antzinatasuna duten langile guztientzat (**hitzarmen kolektiboaren 28.8 artikulua**).

- * Bil itzazue dokumentu batean erakundeko pertsona bakoitzaren nahiak bere denborei eta bizitzari dagokienez.

Bideo honetan, IACTA kooperatibak **Diario de los deseos** deituriko tresna azaltzen du.

- * Sustatu ditzagun lan-saio erantzunkideak beharrezko rol eta zeregin guztiak kontuan hartuz, bai produkzioak bai erreproduktzioak.

REAS Euskadik **Bilera bizigarriak** tresna diseinatu du. Erantzukizunen txandakako sistema bat ezartzean datza; besteak beste, koordinazioaren erantzukizuna, erabakiak bultzatzearen ardura eta afektibitatean edo bidezko parte-hartzean arreta jartzearen ardura txandaka hartzeko.

- Hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista** erabil dezagun gure erakundeetako aniztasuna ikusgarri egiteko, aitortzeko eta balioesteko.
 - * Pikara Magazinek zenbait aholku praktiko eskaintzen dizkigu **“El lenguaje inclusivo o la guerra de las mil batallas”** artikuluan. Artikulu hau Euskal Herriko Unibertsitaterako (UPV/EHU) egindako **‘Uso inclusivo del castellano’** gidaren egokitzapena da.
 - * Emakumearen Institutuak (Instituto de la Mujer) **hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako hainbat gida** bildu ditu, bai orokorrak eta baita eremu jakinetara egokituak ere.



2. Ereitea



HAZITEGIA



Beharrezkoa da erabakitzea zer landatuko dugun eta zer utziko dugun landatu gabe.

Identifikatu genero, sexu-orientazio, sexu-identitate, klase, jatorri eta abarrekin lotutako pribilegioak. Helburua pribilegio horiek zalantzan jarri eta haiei uko egitea izango da.

- › Garrantzitsua da desberdintasunari eusten dioten eta nagusiki gizonezkoek erakusten dituzten praktika orokortzaileak identifikatzea. Mikromatxismo oso sotil eta hedatuei buruz ari gara, besteak beste, manterrumpting, mansplainning edo guesslighting delakoez:
 - * Porta dos Fundos-ek bideo honetan umorearen bitartez deskribatzen ditu lan-giroan gertatzen diren mikromatxismoak.
 - * Ana Requenaren “Cómo identificar los micromachismos” gida didaktikoa.
- › Ezinbestekoa da **maskulinitate hegemonikoen eta pribilegio maskulinoen berrikusketa** egitea.
 - * Nociones Comunes-ek “Las pollas asustadas. Debates sobre la crisis (y reacción) de las masculinidades dominantes” ikastaroa garatu du. Ikastaroko audio eta bideoek maskulinitate azpiratzaileen krisia ulertzen eta esku hartzen laguntzen dute.
 - * Gizonduz gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko ekimena da. Esteka honetan gizon-taldeei buruzko informazio interesgarria aurki daiteke, baita hainbat programa eta baliabide ere.

ORTUA DISEINATZEA



Ortua diseinatzea funtsezkoa da nahi dugun oreka lortzeko.

**Galdetu zeuen buruari non dauden eta non parte hartzen duten erakundeko emakumeek:
Ahaldundu itzazue zeuen uztak!**

- REAS Euskadiren Auditoretza Soziala autoebaluaziorako eta plangintzarako tresna da. Analisi feminista kritikoaren bidez nagusiki, erakundeetako **genero-arrailek identifikatzen** laguntzen du (soldadari, parte-hartzeari, erabakiak hartzeari, etab. erreparatuz).

POLINIZAZIOA



Behar-beharrezkoa da eragin- eta aztarna-ekologikoa kontuan hartzea: kontuz pestizidekin!

**Jar itzazue neurriak zuen jardueren ingurumen-inpaktua murrizteko.
Zaindu ingurumena.**

- Bizitzen eta erakundeen eko-mendekotasuna aintzat hartzen dugunez gero, ezinbestekoa da jarduera guztien **ingurumen-inpaktuak ebaluatzea**:
 - * REAS Euskadiren Auditoretza Sozialean jasotako ingurumen-adierazleek ingurumen-inpaktua neurtzeko aukera ematen digute erakunde gisa (energia eta ura aurrezteak, garraio publikoaren erabilera, hondakinen prebentzioa, ingurumen-kudeaketako sistemak, CO2 isurien kontrola, etab.).
 - * IHOBek, Ingurumenerako Euskal Agentzia Publikoak, kudeaketa eta ingurumen adierazleei buruzko gida bat argitaratu du enpresentzat.
 - * Aztarna ekologikoa neurtzeko hainbat kalkulagailu daude gure eskura, hala nola, Bizkaiko Foru Aldundiarena edo Fundación Vida Sostenible-rena.

3. Ureztatzea

UREZTATZE SISTEMA



Landareak osasuntsu haz daitezen, ezinbestekoa da ureztatze sistema zaintzea.

Begirada feminista kritikoa bultzatzen duten hausnarketarako espazioak ireki, zaintzei balioa eta espazioa eman eta sortu indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloak.

- › Erakunde bizigarri batek **gatazkak erregulatzen eta indarkeriei aurrea hartzen** ikasi behar du bidezko talde-lan ez-heteropatriarkala eta segurua eduki ahal izateko:
 - * SETEM Hego Haizea-k “probentzioa” erabiliz gatazkei aurre egiteko tresna garatu du. Probentzioan ez bezala, probentzioan gatazkak saihestu beharrean, gatazkei aurre egiten zaie. Gainera, indarkeria matxisten prebentziorako, identifikaziorako eta esku hartzeko tresna ere bada.
- › Esperimentatu erabakiak adostasunez hartzen lagunduko diguten tresnekin, ongizate indibidual eta kolektiboa kontuan hartuz, emozioak integratuz eta parte-hartzaileen aniztasunari erantzunez:
 - * Cala Kolektiboak bideo honetan azaltzen du zertan datzan erabakiak adostasun bidez hartzeko garatu duten tresna.

LEKUALDATZEA ETA TALDE-IKASKUNTZA



Lurra lantzen ikasteko norbanakoaren esperientziatik ez ezik, besteengandik ere ikasi beharra dago.

Sareak eta aliantzak ehundu: elkarlana aberastasuna da gure lurrarentzat.

- › Pertsonak eta erakundeak ez gara uharte independenteak; aitzitik, elkarrekiko mendekotasunean bizi gara, eta, beraz, proiektuak pentsatu eta definitzeko garaian, oso garrantzitsua da **elkarlanaren prozesu eta logiketatik** egitea, bai erakunde bereko pertsonen artean, bai erakundeen artean ere.
- › Beharrezkoa da erakunde eta sareetan **kolektibo, talde eta/edo espazio feministen** sorrera bultzatzea, alde batetik, genero-ekitatearekin eta feminismoarekin lotutako eskaerak eta kezkak bideratzeko eta horiei erantzuna emateko; bestetik, diskurtso eta praktika feministak eraikitzeko espazio iraunkor eta parte-hartzaileak sortzeko eta, azkenik, antzeko taldeekin loturak garatu ahal izateko.
- * ekoSolFem Ekonomia Solidarioaren diskurtsoan eta praktikan ikuspegi feminista txertatzeko lanean diharduen REAS Euskadiko taldea da.

UZTA BILKETA



Gure lan-prozesuak eraldatu eta laborantza metodoak berrikusiz gero, uzta ona espero dezakegu.

Egin itzazue zeregin guztiak -produktiboak eta erreproduktiboak- kontuan hartzen dituzten plan operatiboak. Hori eginez gero, datorren urteko uzta askoz ere pozgarriagoa izango da.

- › **Denboraren eta dedikazioaren kontaketa** egitea funtsezkoa da plan operatiboak diseinatzeko eta erabaki estrategikoak hartzeko garaian; horrela bakarrik gainditzen baitira aurrez egindako ideiak okerrak. Zenbaketa horretan erakundeko lanak dakartzan zeregin guztiak sartu behar dira, bai produkzioakoak bai erreprodukziozkoak, eta baita guztiena denari eskaintzen zaion denbora ere (proiektuak gauzatzeari, proposamenak egiteari, lan komertzialari, etab.).
- * Horretarako tresna espezifiko ugari dago: sofistikatuenetatik hasi (proiektuak kudeatzeko sareko aplikazioak) eta errazenetaraino (gutxieneko programazioa duten datu-baseak).



Tresna gehiago ezagutu eta erakunde bizigarriak eraikitzen hasteko bideetan sakondu nahi baduzue, REAS Euskadiren webgunean sar zaitezke:

reaseuskadi.eus

- › **Sortu, zaindu, bizi: praktika feministak ekonomia solidarioko erakundeetan,** Ekonomia Solidarioaren Paperak, 6. REAS Euskadi, Bilbo, 2019
- › **Bizigarria izango da edo ez da izango: apunte feministak gure erakunde(txiki) etarako,** REAS Euskadi, Bilbo, 2020.

Ortuko lana ez da proba eta errorearen teknikan soilik oinarritzen; behar-beharrezkoa du, halaber, esperientziak eta tresnak –laborantzakoak, ereitekoak zein ureztatzeakoak– beste pertsona eta erakundeekin partekatze gogoia ere.

Parteka ditzagun ateratako ondorioak eta ikasitakoak!

Horretarako eta informazio gehiago jasotzeko, hona jo: reaseuskadi@reaseuskadi.net



